

## SEIGARREN TITULUA

### "MODULUEN" ARAU PARTIKULARRAK

#### **7.- ZUÑALORRETA (San Markoko zabortegia)**

Azalera: 32,106 ha.

A- Irizpideak eta helburuak:

"Modulu" hau San Markoko Mankomunitateak zabortegitarako jarrita dituen mugekin eta aurreikuspenekin bat dator. Mankomunitateak Donostialdeko zenbait udalerrri biltzen ditu, hondakin solidoen tratamenduari erantzuteko. Gaur egun, esandako mankomunitateko (Astigarraga, Hernani, Donostia, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Urnieta eta Usurbil) eta, behin-behinean, Irun eta Hondarribia udalerrietako hiri-hondakinak biltzen dituen zabortegitarako erabiltzen da. 2010. urterako beteta izatea aurreikusten du, ebaluazio horretan aurreikusitako baldintzak betetzen badira. Data aurreikuspen horrek jartzen ditu, beraz, lurralde zabal hori parkean sartzeko izango diren epeak.

Bi estrategia planteatzen dira eremurako. Alde batetik, epe labur eta ertainera, finkatu egiten da zabortegi erabilera, legeen arabera hondakin solidoen tratamendu-prozesuen gainean sustatzen diren ekimen guztiak sartuta erabilera horretan. Bestetik, lurraldeak epe ertain eta luzera izango dituen erabilerak aurreikusten dira. Hala, epe ertainera, itxitako zabortegi eremu batzuk behin-behinean erabilera puntual batzuetarako erabiltzea planteatzen da: baratzetarako, berotegiko laborantzarako edo baita zabortegiaren erabilera espezifikoari lotutako erabilera batzuetarako (birziklatze lanak egiteko instalazioak) eta gasa atera eta berriz erabiltzeko prozesu naturalarekin uztartzeko moduko beste erabilera ez-intentsibo batzuetarako ere. Epe luzera, berriz, zabortegia itxi eta harekin lotutako prozesu guztiak amaitu ondoren, erabilera intentsiboko aisia-eremu erabiltzea proposatzen da, eta abeltzaintza-ustiategiatarako erabiltzeko modukoa izatea haren parte bat. Azken helburu horretara bideratutako jarduerak zabortegia itxi aurretik ere hasteko modua izango da.

Biogasa sortu eta hura argindar bihurtzeko instalazioak ere finkatu egingo dira.

Era berean, beste ibilbide batzuk egitea ere proposatzen da, nahiz eta planaren amaieran antolatu beharko diren haiek. Ibilbide horien helburua, besteak beste, epe luzera orain Arkiritik barrena den mugikortasunaren intentsitatea murriztea izango dute. Zehazki, oraindik trazadura zehatzik ez badago ere, Txurdiñene eta Txipres artean ibilbide berri bat egitea aurreikusten da.

B- Hirigintza araubide partikularra:

Hondakin solidoen zabortegiaren erabilera finkatu egingo da harik eta elementu hori lurraldearen egitura organikoan indarrean den bitartean. Horren ondorioz, onartu egin da xede horretarako eraikinak eraikitzea, nahiz eta behar bezala justifikatuta eta, ahal dela, epe ertain edo luzerako ekipamendu bihurtzeko modua izatea kontuan hartuta diseinatuta.

Zabortegiaren azken kotak ez du haren bueltan den bidearen altuerarik pasatu behar.

Aparkaleku bat ere hartuko du eremuak, plan honetan jarrita den gutxieneko zuzkidura izango duena. Horretarako, itxitako eremuan aurreneko zuzkidura bat egitea planteatzen da, planaren garapenaren lehenengo laurtekoan egin daitezkeen ekimenak egitearekin (agroaldea, birziklatze-planta, eta abar) osagarri izango dena.


Zaborteia ixteko proiektuak idatziko dira (partzialak eta osoak), eremua parkean integratzeko proiektua garatzeko modua izateko, proiektu honetan ezarritako irizpide orokorren arabera betiere.

C.- Grafikoa:


Hona hemen antolaketaren grafikoa, 1:5.000 eskalan egina.



# MODULO DE ZUÑALORRETA



ESCALA: 1/5.000



APARCAMIENTOS  
de 5 a 10 plazas Foru Aldundia  
Foral de Gipuzkoa  
11 MAYO 1999  
30 plazas  
APROBACION DEFINITIVA  
BEHIN BEITLO ONARENENA

de 50 a 80 plazas  
Donostia San Sebastián  
Posibilidad de estacionamiento de autobuses  
18 JUN. 1999

Sin Fdo.: Javier Capdevilla Mayoral  
Obr. Adjudicado en Hijigintza Euzkoaren Idazkaritza Teknikoa  
Secretario Técnico del Departamento de Obras Hidráulicas y Urbanismo  
FRONDOSAS

CONIFERAS

Puntos de actuacion singular

PLAN ESPECIAL DE ORDENACION  
"PARQUE DE LAU-HAIZETA"